



**Arartekoaren 2020R-172-19 Ebazpena, 2020ko uztailaren 6koa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala bere ibilgailuarekin kontrako noranzkoan zirkulatzeagatik kexaren sustatzaileari jarritako zehapena, eta berrikus ditzala inguruabar berberetan eta arrazoi berarengatik beste pertsona batzuei jarritako zehapenak.**

### Aurrekariak

1. XXX andreak kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, izan ere, Gasteizko Udalak, Maite Zuñiga (z.g.) kalean *"agindutakoaren kontrako noranzkoan gidatzea"* egotzita –udaltzain batek 2018ko irailaren 9an bere ibilgailuaren kontra jarritako salaketa batean oinarrituta (salaketa-orriaren eta espedientearen zenbakia: XXX)—, 500 euroko isuna ezarri zion eta 6 puntu kendu zizkion, eta kexagilea ez dago ados.

Kexaren arabera, kexagilea bere etxetik (MMM kaletik) Mendizorrotza kirol-guneko aparkalekuraino zihoala, "Ponle freno" lasterketa zela eta, bere ibilbidetik desbideratu eta berriro bideratu zuten, batzuetan Udaltzaingoak eta beste batzuetan lasterketako zaintza-zerbitzuek birbideratu zuten.

Kexagileak adierazi zuenaren arabera, leku berera bi aldiz eraman zuten joan-etorri deseroso batzuk egin ondoren, Iturritxu/Aretxabaleta ingurura heldu zen. Bestalde, gaineratu du Udaltzaingoaren eta lasterketako zaintza-zerbitzuen aginduei jarraituz, hamabi autok (kexagilearena tartean) eta zenbait motorrek, une jakin batean, debekatutako noranzkoan zirkulatu behar izan zutela, ilaran.

Interesdunak argitu zuen egoera horretan interpretatu zuela debekatutako noranzkoan zirkulatzea bat zetorrela kirol-proba dela-eta ezarritako trafikoaren antolamendu bereziarekin, eta, beraz, ez zela arau-haustea.

Kexan adierazitakoaren arabera, ilaran zihoazen ibilgailuak Mendizorrotzako kirol-guneko atzealdeko biribilgune batera iritsi zirenean bi udaltzainekin egin zuten topo, eta haiek desbideratzeko eskatu zieten Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeko aparkalekuko kanpoaldera; zenbait ibilgailuk baino ez zuten egin hori, eta gainerakoek Lasarte aldera jarraitu zuten.

Kexagilearen arabera, udaltzainek oso modu txarrean eta azalpenei kasurik egin gabe, eta hainbeste ibilgailu aldi berean noranzko debekatuan zirkulatzen ari zirela





kontuan hartuta, gidariei ahoz adierazi zieten salatuak izango zirela arrazoi horrengatik.

Interesdunak adierazi du, egoera ezohikoa zenez eta babesgabetasuna sentitu zuenez, 010 telefono zenbakira deitu zuela gertatzen ari zenaren berri emateko.

Azpirarratu zuen, halaber, bere ibilgailuak eta gainerakoek debekatutako noranzkoan zirkulatu zutela Udaltzaingoaren eta lasterketako zaintza-zerbitzuen aginduak bete zituztelako, eta erantzukizuna egotz ziezaieketela ukatu zuen, bere ustez proba gaizki antolatu izanaren ondorioz gertatu baitzen adierazitako emaitza eta arriskuan jarri baitzituen bere segurtasuna eta bidearen gainerako erabiltzaileena.

Interesdunak adierazi zuen aipatutako inguruabarrak alegatu zituela Udalean, eta horrek bere alegazioak ezetsi zituela formula estandarizatu batekin. Formula horrek ez zituen aintzat hartzen alegazioak, eta ez zizkion ezespeneren arrazoiak jakinarazi.

Kexagilea, bestalde, kexatu egin zen agenteek bai berari bai gainerako gidariei eman zieten tratuagatik, arestian adierazitako baldintzetan, eta agente salatzaileak uniformean erakusten zuen identifikazio profesionaleko zenbakia (zenbakia eskatzerakoan agenteak berak adierazitakoa) ezabatuta zegoelako, eta hori ere adierazi zion Udalari, baina ez zuen erantzunik jaso.

Kexaren arabera, kexagilea salatu zuen udaltzainak ez zion salaketaren berri unean bertan eman. Era berean, dokumentu hori ez zitzaion jakinarazi geroago.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Gasteizko Udalera jo zuen, hark planteatutako gaien berri eman ziezaioten eta baloratu zitzaten kexagileak egindako alegazioak eta alegazio horiek ezarri zioten zehapenaren baliozkotasunean eraginik ez zuela pentsaraztera eraman zuten arrazoiak.

Halaber, kirol-proban ibilgailuen trafikoaren bide-segurtasuna bermatzeko hartu ziren neurrien berri emateko eskatu zion, bai eta zehapen-prozedurari dagokion administrazio-espedientearen kopia bat emateko ere.

3. Eskaera horri erantzute aldera, Udalak honela justifikatu zuen kexagilearen alegazioak ez onartu izana: hainbeste ibilgailu batera debekatutako noranzkoan zirkulatzea irregulartasun bat zela ikusirik, agente salatzaileak bertatik bertara





egiaztatu zuen egoera hori ez zela sortu beste agente batzuek eta kirol ekitaldiko antolatzaileek emandako aginduengatik.

Adierazten zenaren arabera, egiaztapena egiteko, agenteek *"preguntaron por emisora si había algún recurso desviando el tráfico cortado con vallas en la rotonda que une las calles El Caserío y Zumabide, pero no recibieron respuesta"*; horren aurrean, agente salatzaileak *"condujo con el vehículo patrulla hasta la rotonda para comprobar que no había ningún recurso ni policial ni auxiliar de la carrera que desviase el tráfico en el modo en el que lo habían hecho los vehículos denunciados. No contento con ello, comprobó que las vallas con señales se encontraban en el mismo lugar en que habían sido colocadas y por lo tanto seguían impidiendo el paso en la rotonda mencionada en el sentido Mendizorroza. Más aún, tampoco había recursos regulando el tráfico para desviarlo en sentido contrario"*.

Arartekoak irizten zuen emandako azalpenak kexagilearen alegazioak ez onartu izana eta ezarri zioten zehapena justifikatu ahal izateko, haren ibilgailuak eta aldi berean debekatutako noranzkoan zirkulatzen zuten gainerakoek Maite Zuñiga kale aldera jo behar zuten aipatutako biribilgune horretatik.

Interesdunak jarraitutako ibilbidearen berri emateko egin zion eskaerari erantzute aldera erakunde honi eman zion informazioaren arabera, adierazi zuen ez zela biribilgune horretatik igaro, Maite Zuñiga kalera Félix González Petite kaletik sartu baitzen.

Informazio hori ikusita, Arartekoak uste zuen salaketa jarri zuen agenteak egindako egiaztapenak, Udalak eta agenteak berak salaketa eta kexaren xede zen zehapena justifikatzen zituenak, ezin zituela jarduera horiek babestu, baldin eta, kexagileak adierazi bezala, egiaztapena egin zen biribilgunetik ibili ez bazen.

Hori dela eta, erakunde honek iritzi zuen Udalak kexaren sustatzaileari jarritako zehapena berrikusi behar zuela, kontuan hartuz ez zuela zirkulatu agente salatzaileak egiaztapena egin zuen tokitik eta, hark emandako informazioaren arabera, Udaltzaingoaren eta kirol-proba zaintzen zuten zerbitzuen aginduengatik joan zirela ibilgailu horiek guztiak salatuak izan ziren tokiraino.

Arartekoak uste zuen, halaber, Udalak kontuan izan behar zuela, berrikuspenean, agente salatzaileak eta haren patruila-kideak ezohikotzat jo zutela kexagileak eta gainerako ibilgailuek debekatutako noranzkoan zirkulatzea, eta aitortu zuen, halaber, gidariak nahasteko moduko inguruabarren bat gertatu izan balitz, ez





zituztela salatuko, ulertu baitzuten, kexagileak emandako informazioaren arabera, inguruabar hori gertatu zela.

Erakunde honek uste du, halaber, aipatutako kontsiderazioak estrapolatu egin zitezkeela inguruabar berberetan eta arrazoi beragatik kexagilearen ondoan debekatutako noranzkoan zirkulatzen ari ziren gainerako ibilgailuei ezarritako gainerako zehapenetara, eta, haren ustez, horiek ere berrikusi egin behar ziren, adierazitako parametroen arabera.

4. Kexaren xede den zehapena ezartzeko izapidetutako zehapen-prozeduraren administrazio-espedienteak, Udalak Arartekoari eman zionak, berresten zuen zehapen-ebazpenak kexagilearen alegazioei emandako erantzuna ereduazko erantzun bat zela, ez zituela alegazioak baloratzen eta ez zituela ematen horiek ez onartzeko arrazoiak.

Administrazio-espedienteak, era berean, agerian uzten zuen agente salatzailleak ez ziola berehala jakinarazi salaketa interesdunari, eta arrazoi gisa adierazi zuen *“encontrarse regulando tráfico con motivo de la prueba deportiva ‘Ponle Freno’”*; era berean, agerian uzten da prozedura izapidetu egin zela, aldez aurretik prozedura hasteko nahitaezko erabakia hartu gabe.

Erakunde horren ustez, agenteak salaketa unean bertan interesdunari ez jakinarazteko arrazoia ez zegoen legez baimendutakoen artean, eta Udalak kexagileari zehapena ezartzeko egin zuen izapideak ez zuen behar bezalako lege-babesik prozedura hasteko erabakian, eta horrek, bere ustez, eragina zuen zehapenaren baliozkotasunean, eta, horregatik, ondoriorik gabe utzi behar zen.

Arartekoak aipatutako balorazioa helarazi zion Udalari, adierazitako zentzuan jarduteko prest zegoen ala ez jakinarazi zezan eta adierazi zezan, hala badagokio, bere ustez, zer arrazoiengatik eska zekiokkeen erantzukizuna kexagileari zehapenak hizpide zuen arau-haustean, adierazitako inguruabarretan.

Era berean, agenteek interesdunari eta gainerako pertsoneri eman zieten tratuari buruzko gaien berri emateko eskatu zion, bai eta agente salatzailleak uniformearen erakusten zuen identifikazio profesionaleko zenbakia ezabatuta egotearen arrazoia emateko ere. Gai horiek kexan ere planteatzen ziren, lehen informazioan ez baitzen haiei buruzko adierazpenik egin.



5. Bigarren eskaera horri erantzunez, Udalak honako informazio hau helarazi zion Arartekoari:

*"En respuesta a su escrito y en cuanto a la primera cuestión se refiere, cuando se produce un evento de esas características en la ciudad, se realiza una política de desvíos tratando de que convivan las pruebas que se realizan y las necesidades de la ciudad y en concreto las de sus ciudadanos.*

*Entrando en detalle y en concreto en la rotonda de la que hablamos calle El Caserío con Zumabide, como los agentes reflejaron en su informe y fue avalado por las declaraciones de otro ciudadano que observó la maniobra, se encontraba cortado con señales y vallas que impedían el acceso por la calle Maite Zuñiga hasta el parking de Mendizabala. Aquí es por lo que habría que preguntar a los ciudadanos, sobre cual es el motivo de tener una calle, que es la que tiene el sentido correcto, cortada con vallas y señales y ellos se metieron en sentido contrario para llegar a su destino (señalizado con señales fijas verticales).*

*A todas luces se desprende que el agente actuó correctamente preguntando por emisora por si algún otro agente había permitido realizar tal maniobra. Este hecho no fue reconocido por ningún agente porque no se produjo.*

*Cabe señalar que la carrera venía del Alto de Uleta y en la rotonda de Portal de Lasarte giraba a la izquierda para ir en dirección centro ciudad. Y el tráfico que bajaba por la A-3102 centro-ciudad se desviaba por Maite Zuñiga, hacia la rotonda de esmaltaciones, precisamente por donde venía, la ciudadana reclamante, en dirección prohibida.*

*Con todo esto queda claro que a esa rotonda en la dirección que quería seguir la ciudadana no se podía llegar. Estaba o prohibido por señales fijas o prohibido por vallas y señales puestas al efecto y que comprobó el agente.*

*Analizando el recorrido que dice que realizó la ciudadana, accediendo desde la calle Félix González Petite, o se incorporó a la rotonda de El Caserío con Zumabide desde la calle Barrundia y entró en ésta en dirección prohibida hasta su encuentro con los agentes o desde Félix González Petite al incorporarse a calle Zumabide giró a la izquierda por prohibido hasta encontrarse, también, con los agentes.*



*De la misma forma hay que recoger la complejidad del trabajo policial en este tipo de pruebas, velando por la seguridad de los participantes y en muchos casos teniendo que corregir conductas de ciudadanos que por muy claras que estén las indicaciones insisten en repetir recorridos que habitualmente y en otras circunstancias pueden realizar.*

*También hay que señalar que dada la complejidad de la rotonda en cuestión y analizados todos los elementos que se daban en la misma, se diseñó el servicio con dos agentes y de ahí que uno de ellos pudiese realizar las comprobaciones oportunas, en un momento adecuado.*

*En la misma línea señalar que no es lo mismo realizar una denuncia que diez o más y no es lo mismo en un momento de tranquilidad en el quehacer diario de los patrulleros que mientras regulan una prueba deportiva, tienen que corregir conductas y responder consultas ciudadanas.*

*Por todo lo cual cabe reseñar la actuación de los agentes que diligentemente y a sabiendas de la complejidad de una regulación de ese tipo, realizaron una comprobación como la que hicieron, en aras de corregir algo que podía haber estado mal o comprobar la versión de la ciudadana. Resultando una actuación profesional y un obrar de manera eficiente y provechosa.*

*En cuanto a las "malas maneras" que expresa la ciudadana en su primer escrito y sin denuncias concretas de tal hecho y como ella refiere que varios vehículos (que como ha quedado acreditado arriba se podían encontrar de frente unos en sentido correcto y los que circulaban en sentido contrario al de la marcha), la carrera en curso y demás motivos es cuando menos difícil concretar un trato incorrecto que los agentes realicen, comprobando señales, vallas, desplazándose para hacer comprobación, etc. No por ello dando aprobación a conductas que puedan ser inadecuadas para con el ciudadano, por parte de un colectivo profesional que se debe regir por el respeto y las normas."*

Udalak ez zuen adierazpenik egin erakunde honek zehapen-prozedura izapidetzean hauteman zituen legezkotasun-eragozpenei buruz, agenteen jarduketa garatu zen inguruabarrei egindako apelazioa izan ezik, transkribatu diren baldintzetan.





## Gogoetak

1. Interesdunak uste du ezin zaiola erantzukizunik egotzi ezarri zitzaion zehapena eragin zuen arau-haustean, eta babestu egiten du arau-haustea etxetik Mendizorrotza kirol-gunera iristeko jarraitu behar izan zuen ibilbidean zehar jaso zituen jarraibideak bete izanaren ondorioz gertatu zela. Jarraibide horiek Udaltzaingotik eta egun horretan hirian egiten ari zen kirol-probaren zaintza-zerbitzuetatik zetozen.

Udalak uste du, ordea, kexagileak ildo horretan egindako alegazioak baztertu egin behar direla, izan ere, hainbeste ibilgailu debekatutako noranzkoan zirkulatzen ari zirela adierazten zuen anomaliaren aurrean, salaketa jarri zuen agenteak egiaztatu baitzuen inguruabar horrek ez zituela betetzen beste agente batzuek eta probaren antolatzaileek emandako jarraibideak.

Honako hauek egiaztatu ziren: adierazi den bezala, Mendizorrotzarantz ibilgailuak sar ez zitezen El Caserío eta Zumabide kaleak lotzen dituen biribilgunean jarri ziren hesiek ea beren lekuan jarraitzen zuten eta biribilgune horretan pasatzen uzten ote zuten.

Aurrekarietan, agerian geratu da, erakunde honen iritziz, aipatutako jarduketek ezin zituztela indargabetu interesdunaren alegazioak, ezin zutela haren ezespena oinarritu, ezta bere jokabidea justifikatzeko eman zituen azalpenei sinesgarritasunik eman ez izana arrazoitu ere. Azalpen horiek, antza denez, bat zetozen berak eta gainerako gidariak patruilari debekatutako noranzkoan zirkulatzeko arrazoiei buruz emandako azalpenekin, baldin eta, kexagileak berak adierazi bezala, bera ere egon zen ibilgailu-ilara ez zen biribilgune horretatik ibili, Felix Gonzalez Petite kaletik Maite Zuñiga kalera iritsi baitzen.

Arartekoaren ustez, Udalak horri buruz aurrekarietan jasotako terminoetan eman zizkion azalpenek ezin dute justifikatu kexagilearen eta gainerako gidarien adierazpenei sinesgarritasunik ez ematea, azalpen horiek aipatutako biribilguneari buruzkoak baitira berriz ere.

Horregatik, erakunde honek azpimarratu behar du, bestelako azalpenik ezean, Udalak bere bigarren informazioan El Caserío eta Zumabide kaleak lotzen dituen biribilgunean ibilgailuen zirkulazioari buruz helarazi dituen gogoetek ez dutela birtualtasunik kexan planteatutako auzia konpontzeko, izan ere, esan bezala, kexagileak adierazi du ez dela biribilgune horretan ibili.





Era berean, adierazi behar da, kexaren sustatzaileak jarraitu zuen ibilbidearen harira Arartekoari eman zizkion argibideen arabera (Arartekoak gero Udalari jakinarazi zion), ez dirudiela Zumabide kaletik igaro zenik, Maite Zuñiga kalera Félix González Petite kaletik sartu baitzen.

Zehaztu behar da kexagilearen alegazioak ez zirela Udaltzaingoaren eta lasterketako zaintza-zerbitzuen ohar bakar bati buruzkoak, baizik eta egin zuen ibilbidean jasotako alegazio guztiei buruzkoak.

Udalak ez dio erakunde honi inolako elementurik eman interesdunak jarraitu zuen ibilbideari eta jaso zituen oharrei buruz eskaintzen duen bertsioaren egiantza zalantzan jartzeko; izan ere, haren adierazpenen arabera, haren jarraipenak, beste hamaika automobil eta motorrekin batera, leku horretaraino eraman zuen, eta ez du egiaztatu gertaerak modu horretan gertatu zirenik.

Erakunde honen arabera, bestelako froga-elementurik ez dagoenez, kexagileak aurkeztu dituen zantzuak, bereziki hamabi ibilgailuk kontrako noranzkoan ilaran zirkulatu izana bezalako gertakariak (agente salatzaileak eta patruilako bere kideak ohiz kanpokotzat jo zutena), erakusten dute kasu honetan agenteek aipaturiko errugabetzeko inguruabarrak ematen direla eta ezin dela salaturiko arau-haustearen ziozko erantzukizunik eskatu, baldin eta, dirudienez, ez ohiko gertakari bat gertatzen ari zela baztertzeko egindako egiaztapenak ez baziren egokiak izan, kontuan izanda interesdunaren arabera ibilgailuek jarraitu zuten ibilbidea.

Azaldutakoaren ondorioz, Arartekoak berretsi behar du Udalak berrikusi egin behar duela kexagileari jarri zion zehapena, kontuan hartuta ez zela ibili agente salatzaileak egiaztapena egin zuen lekutik, eta, haren informazioaren arabera, Udaltzaingoaren eta kirol-probaren zaintza-zerbitzuen oharrak izan zirela salaketa jarri zen tokiraino eraman zituztenak haien atzetik zihoazen ibilgailuak.

Azpimarratu behar da, era berean, zehapena berrikusi ostean, Udalak kontuan hartu behar duela agente salatzaileak eta patruilako bere kideak ez ohikotzat jo zutela kexagilea eta gainerako ibilgailuak debekaturiko noranzkoan zirkulatzea eta aitortu zuten nahaste bat eragin zezaken inguruabarrak balego ez luketela salaketarik jarriko, izan ere, esan bezala, kexagileak emandako azalpenei jarraikiz, inguruabar hori eman zen.





Gogorarazi behar da, bestalde, erruduntasun-printzipioak eskatzen duela arau-haustearen erantzukizuna dolu edo erru gisa egotzi ahal izatea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 28. artikulua).

Erakunde honek, ordea, zalantzan jartzen du errekerimendu hori betetzen zela kexaren kasuan, unean uneko inguruabarrak kontuan hartuta; izan ere, gure ustez, inguruabar horiek baztertu egingo lukete interesdunari zehapena eragin zuen arau-haustea dolo edo erru gisa egozte eta, ondorioz, dagokion erantzukizuna eskatzea.

Arartekoak azpimarratu behar du, halaber, aurreko gogoetak kexagilearen ibilgailuarekin batera debekatutako noranzkoan zirkulatzen ari ziren gainerako ibilgailuei egoera berean ezarri zitzaizkien gainerako zehapenetara estrapolatu daitezkeela; erakunde honen iritziz, horiek ere berrikusi egin beharko lirateke.

2. Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agenteek unean bertan jakinarazi beharko dituzte esparru horretan arauak urratzeagatik jartzen diren salaketak. Hala ere, egoera jakin batzuk betebeharrak horretatik salbuesten dira, tasatuta daude eta, besteak beste, hau da egoera horietako bat: *"agente salatzailea trafikokoaren zaintza, kontrol, erregulazio eta diziplinaren zereginetan aritzea eta ibilgailua jarraitzeko bitartekorik ez izatea"* [Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 89.2.d) artikulua].

Agintaritza-agenteek salatutako pertsona gelditu gabe salaketak formulatzen badituzte, ez dira baliozkoak ibilgailua ez gelditzeko arrazoi zehatzak eta espezifikokoak agertzen direnean izan ezik, betiere unean jakinaraztea salbuesteko lege xedatutakoen artean badaude (320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, trafiko, motor-ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunaren arloan zehapen-prozeduraren araudia onartzen duena, 10. artikulua).

Aurrekarietan adierazi den bezala, kexagilea salatu zuen agenteak ez zion berehala jakinarazi salaketa, eta horren arrazoia izan zen trafikoa arautzen ari zela kirol-proba zela eta.

Aplikatu beharreko lege-araubidearekin bat etorritik, gorabehera hori ez da, ordea, salaketa une horretan jakinarazi ez izana justifikatzeko arrazoi nahikoa; izan ere, araubide horrek eskatzen du ez bakarrik agenteak trafikoa arautzea, horretaz gain, ez du izan behar ibilgailuaren jarraipena egiteko baliabiderik.





Horregatik, erakunde honek berretsi egin behar du Arartekoaren 2018ko abenduaren 20ko 2018R-2864-17 Ebazpenean Udalari adierazi ziona, eta adierazi behar du azken eskakizun horrek, aldi berean, ibilgailua zirkulatzen egotea eskatzen duela. [http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4667\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4667_1.pdf)

Errekerimendu hori, aipatutako ebazpenean adierazi zen bezala, inplizitua dago otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 10. artikuluan, baina ez dirudi kasu honetan ere egon zenik.

Kontuan hartu behar da, emandako informazioaren arabera, kexagileak ibilgailua geratu zuela agenteek beraiek hala aginduta, eta bertan egon zela agente salatzaileak egiaztatu zuen arte zer egoeratan zegoen El Caserio eta Zumabide kaleak batzen dituen biribilgunea.

Salaketa unean bertan ez jakinarazteak, legeak bidea ematen duen jakinarazpena atzeratzeko kasuak gertatzen ez direnean, berekin dakar, adierazi den bezala, salaketa baliogabea izatea, eta salaketa eragin duen zehapen-prozedurako gainerako jarduketak ere baliogabeak izatea, zehapen-ebazpena barne, erakunde honen iritziz, arrazoi horregatik ondoriorik gabe utzi beharko litzatekeena.

Aurrekarietan adierazi den bezala, Udalak ez du adierazpenik egin erakunde honek kexaren alderdi horri buruz egin zion balorazioari buruz; bakarrik adierazi du ez dela gauza bera salaketa bat edo hamar edo gehiago egitea eta kirol-proba bat arautzen den bitartean egitea.

Arartekoak onartzen du salaketa bat jartzeko inguruabarrak oso desberdinak izan daitezkeela, baina, aldi berean, uste du horrek ez duela eragozten Udalak aipatzen duen egoera ez dagoela jakinarazpena atzeratzeko legez gaitzen dutenen artean, eta salaketa egintzan jakinaraztea salatutako pertsonarentzako berme bat dela, eta legez ezarritako kasuetan bakarrik laga dezakeela.

Nolanahi ere, uste dugu gai hori baloratzean ezin dela alde batera utzi salaketa jarri zuen agenteak bere ibilgailuan utzi zuela egokitzat jo zituen egiaztapenak egiteko tokia, eta, udal-informazioaren arabera, egiaztapen horiek egin ahal izan zituela beste agente batekin batera zegoelako. Agente hori arduratu zen trafikoa arautzeaz, patruilako kidea kanpoan zen bitartean.





3. Trafikoko araudia haustearen ziozko zehapen-prozedurak ofizioz hasten ditu dagokion arau-haustea eragin duten egitateen berri duen agintaritza eskudunak. Hala ere, trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritza-agenteen salaketak, salatuari berehala jakinarazten zaizkionak, prozedura hasteko egintza dira ondorio guztietarako (ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. art.).

Aurrekarietan azaldu den bezala, kexaren xede den zehapen-prozeduraren administrazio-espedienteak, Gasteizko Udalak erakunde honi eman dionak, agerian uzten du egindako prozedura-izapideak aldeztatik prozedura hasteko nahitaezko erabakia hartu gabe egin zirela, zeina beharrezkoa baita izapide horiei eta zehapenari berari babes juridikoa emateko, kasu honetan gertatu zen bezala salaketa ez baitaio berehala jakinarazten pertsonari.

Zehapen-prozedura hasteko akordiorik ez badago, salaketaren ondorioz egindako zehapen-izaerako administrazio-egintzek ez dute behar bezalako babes juridikorik, aipatutako akordioak ematen duen moduan, eta legezketasun-muga horrekin ezarritako zehapena ondorioz gabe utzi behar da, prozeduraren bermeak urratzen direlako (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83. artikulua eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 25. artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluekin lotuta).

Arestian aipatu bezala, Udalak ez du erantzunik eman erakunde honek gai horren harira eman duen balorazioari buruz, hortaz, berriro errepikatzen da.

4. Udalak Arartekoari emandako informazioak, agenteek eragindako pertsonari eman zieten tratuari eta agente salatzailerak erakusten zuen identifikazio profesionaleko zenbakiari buruzkoak, ez ditu argitzen horri buruzko kexan planteatutako gaiak. Adierazi den bezala, informazioak hau besterik ez du adierazten: *"es difícil concretar un trato incorrecto que los agentes realizan"*. Hori, agenteek seinaleak eta oharrak zuzenak ziren egiaztatzeke egindako jarduketetan oinarritzen da.

Aurkeztutako justifikazioa ikusita, Arartekoak berriro esan behar du kexagileak tratu okerra zehazten zuela, agenteek harengana eta gainerako pertsonengana jotzeko erabili zituzten moduei dagokienez, txarrak zirela esaten baitzuen, eta ertzainek ez zirela jaramonik egin debekatutako noranzkoan hainbeste ibilgailu elkarrekin zirkulatzeko arrazoiari buruz ematen ari zitzaizkien azalpenei.





Agenteek egiaztatzeko duten borondatea, zalantzarik gabe, goraipagarria da, baina argi dago kasu honetan egin zuten egiaztapen zehatza ez dela egokia izan, baldin eta, kexaren arabera, ibilgailuak ez baziren ibili egiaztapena egin zen lekutik.

Nolanahi ere, zehaztu behar da agenteek aipatutako egiaztapena egitea ez datorrela bat planteatutako gaiarekin; izan ere, berriz ere esaten da, erabilitako moduak direla eta kaltetutako pertsonen ez zitzaiela utzi azaltzen.

Gogoan izan behar da udaltzainek tratu egokia eta arduratsua izan behar dutela herritarrekin dituzten harremanetan, eta enpatiaz jokatu behar dutela. Halaber, polizia-uniformean identifikatzaile pertsonala erakutsi behar dute, polizia-kode deontologikoaren barruan (30 bis artikulua, Euskal Herriko Poliziari buruzko uttailaren 17ko 4/1992 Legearen 24. eta 28. artikuluekin lotuta).

Hori dela eta, erakunde honen ustez, kexaren xede den polizia-jarduketaren alderdi horiek argitzea komeni da.

5. Arartekoan hainbat aldiz deitu duela arreta, izan ere, zigor prozedurak izapidetzerakoan lehenetsitako ereduak erabiltzekotan bermeak eta eskubideak urritu baitaitezke, administrazioak formalki baino ez baditu betetzen arauetan ezarritako baldintzak, babeserako eskubideak dakartzan eskakizun materialak asebate gabe.

*“Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna: aurrez taxututako ereduak erabilera zehapen prozedurak tramitatzean. Zenbait arazo defentsarako eskubidearen inguruan.”* Gomendio Orokorrean (Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2003) horren inguruan erakunde honek duen jarrera jasotzen da.

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_925\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_925_1.pdf)

Kexaren kasuan eta Gasteizko Udalak arlo horretan izapidetutako beste zehapen-prozedura batzuetan —erakunde honek eskuratu dituenak— interesdunek beren defentsan aurkezten dituzten alegazioak baztertzea arrazoitzen da, hainbat alegazio aipatzen dituen ereduzko formula batekin. Hori dela eta, Arartekoak aipatutako gomendioa gogorarazi behar du, eta Udalak hori betetzen dela bermatzeko behar diren mekanismoak ezarri behar ditu.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Gasteizko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **GOMENDIOA**

1. Ondoriorik gabe utz dezala *"agindutakoaren kontrako noranzkoan gidatzea"* egotzita kexagileari ezarritako 500 euroko isuna eta 6 puntu kentzea (XXX zehapen-prozedura).
2. Kexagilearen ibilgailuarekin batera noranzko berean zirkulatzen ari ziren gainerako ibilgailuak gidatzen ari zirenei egoera berean eta arrazoi beragatik ezarritako zehapenak berrikus ditzala.

